

## BEKA DEIALDIA, UPV/EHUko ARTE EDERREN FAKULTATEKO IKASLEEI ESKLUSIBAN ZUZENDUA, 2024/2025ean ARTE PROIEKTU BAT EGITEKOA FUNDAZIOAK UTZITAKO ESTUDIO BATEAN.

**IZENA EMATEKO EPEA:** 2024ko MAIATZAK 23

BILBAO ARTE FUNDAZIOAK, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEko ARTE EDERREN FAKULTATEAekin lankidetzan, kultura sustatu eta arte ekoizpena bultzatu guran, **beka bat eskaintzen die eskusiban UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleei, haren urteroko beka programako ezaugarri bereberkin.**

Bilbao Arte Fundazioaren ezaugarriak (instalazio teknikoak eta profesionalen taldea) aintzat hartuta, oso garrantzitsua da proiektuetan Bilbao Arteren baliabide eta posibilitate tekniko eta profesionali etekin handia ateratzea.

Beraz, lehenetasuna emango zaie fundazioan bertan lan egitea eta bertako ekipamendu teknikoak eta teknikarien aholkua eta laguntza ahalik eta gehien baliatu beharra egiaztatzen duten proiektuei, Bilbao Arteko instalazioak eta profesional taldea erabiltzeko premiarik ez duten proiektuen aurretik.

Horrenbestez, egonaldi aktiborako beka honetan bereziki baloratuko dira teknologia berrien tailerra, medialab, eskultura eta serigrafia eta grabatu tailerrak etengabe erabiltzeko lan plan dokumentatu bat aurkezten duten proiektuak.

(Ikus webgunean Bilbao Artek artisten esku jartzen dituen teknologia eta baliabideak).

### BESTE XEHETASUN JAKINGARRI BATZUK

- **Eskabidea baztertzailea izango da**, hau da, Arte Ederren Fakultateari lotutako beka honetara aurkezten den ikasleak ezingo du hautagaitzarik aurkeztu BilbaoArte Fundazioaren deialdi orokorrean.

- Beka hauek EZ dira bateraezinak bestelako laguntza osagarriekin. Bakarrik dira beka honekin bateraezinak epe berean Bilbotik kanpo bizitzea eskatzen duten egonaldiak.
- Laguntza hauekin edozein diziplina artistiko-plastikotako lanak egin daitezke, baina ezinbestekoa da deialdiko epearen barruan egitea.
- Proiektua egonaldiaren epean amaitzeko konpromiso hori bete ezean, Bilbao Arte Fundazioaren esku egongo da zein erabaki hartu. Erabaki hori apelaezina izango da.
- Deialdi honetara aurkez daitezke 2022/23 eta 2023/24 ikasturteetan Arte Ederren Fakultatean matrikulatuta dauden graduako, masterreko edo doktoregoko ikasle guztiak, edozein dela ere beren adina eta jatorria.
- 
- Beka hamar hilabeterako izango da, 2023ko irailaren 15etik uztailaren 15era.
- Estudio bat uztea eta dirulaguntza ematea eskatzeaz gain, artistek ostatua ere eskatu ahal izango dute, kosturik gabe, Bilbao Arte Fundazioari lagatako pisu partekatuetan, baldin eta pisuok bete ez badira beken urteroko programako deialdian.

## **EPAIMAHAIA**

Arte Ederren Fakultatearen hiru irakasle eta BilbaoArte Fundazioko ordezkariak osatutako epaimahai batek hautatuko ditu proiektuak. Epaimahaiaren osakideen izenak Bilbao Arte Fundazioaren webgunean eta bitakoran argitaratuko dira, epaimahaiaren erabakia ezagutzerakin batera. Erabaki hori apelaezina izango da.

## **BEKAREN BALDINTZAK**

Beka esleituz gero, artistak dirulaguntza bat jasoko du, eta espazio bat lagako zaio aldi batez erabiltzeko BilbaoArte Fundazioan.

Estudio hori erabiltzeaz gain, bekadunak aukera izango du zentroko beste produkzio tailer eta azpiegitura guztietara sartzeko.

BilbaoArtek era emango dio bere instalazio guztiak erabiltzeko (ikus ekipamenduaren azalpen zehatza fundazioaren webgunean), eta horretaz gain, tailerreko maisu-maistrek aholkua eta sostengua emango diote bere premia teknikoetan.

**Hautatutako pertsonak estudio bat izango du eta 6.000 euroko dirulaguntza jasoko du ekoizpen gastuetarako.**

### **BEKADUNEN KONPROMISOA**

Espazio edo estudio bat lagatzeak berekin dakar bekadunak hori etengabe erabili beharra proiektua egiteko onartu den epean.

Bekaduna estudioan luzaroan azaltzen ez bada justifikaziorik gabe, edo espazioa erabiltzen ez badu utzi zaion helbururako, automatikoki galduko ditu bai espazioa eta bai dirulaguntza.

Horrekin batera, eskubidea kenduko zaio Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak hornitutako materialak erabiltzeko eta itzuli beharko du ordu arte jasotako materialen kostua.

Bekadunak konpromiso hauek hartuko ditu:

1. BilbaoArteren arautegia betetzea.
2. Bekaldian zehar Bilbo inguruan bizitzea.
3. Bere proiektua zentroan garatzea eta harremanetan egotea fundazioak bere zerbitzura jarriko dituen tutore eta aholkulariekin.
4. Jasotako laguntzaren truke, berak sortutako pieza esanguratsu bat lagatzea, BilbaoArte Fundazioaren bilduma publikoan sartzeko.
5. Parte hartzea Ateak Zabaltzeko Eguneako jardueretan (erakusketa kolektiboa, proiektuen aurkezpena etab.) eta egonaldiaren amaieran materialak aurkeztea, urteko memoria egiteko.
6. Egonaldia ikus-entzunezko lan bat sortzeko baldin bada, BilbaoArteren izena kredituetan azaldu beharko da.
7. BilbaoArteko lan espazioak eta ekipamendua erabiltzeko baldintzak onartzea (webgunean ikusgai).

Oinarri hauek betez gero, artistak aurkeztu ahal izango dira gehienez hiru erakusketa inbididual egiteko hautaketa prozesura. Erakusketok fundazioak berak ekoitziko ditu eta 2024 urtean zehar egingo dira. Erakusketa hauetan fundazioak bere gain hartzen ditu obra sortzeko gastuak, erakusketaren inaugurazio eta zabalkundearen gastuak eta artistaren ordainsaria.

## AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

### 1. Proiektuaren dossierra. Atal hauek izan beharko ditu:

- Izena emateko orria.
- 2022/2023 edota 2023/2024 ikasturteko matrikularen gordekina.
- Proiektuaren laburpen txiki bat, gehienez 30 lerro.
- BilbaoArteko baliabide eta instalazioak erabiltzeko kronograma.
- Aurretik egindako irudi, zirriborro eta lanak, aurkeztutako proiektuarekin loturaren bat daukatenak.

### 2. Curriculum pertsonala, merezimendu akademiko eta profesionalekin.

### 3. Proiektua hobeto ulertzen laguntzeko interesdunak aurkeztu nahidituen bestelako dokumentu grafiko osagarriak, katalogoak, zirriborroak eta irudiak.

## ESKARIAK AURKEZTEKO ERA:

Dokumentazioa posta elektronikoz aurkeztu beharko da,

PDF artxibo bat (gehienez 10 Mb) bidaliz helbide honetara:

[ecultural.bellasartes@ehu.eus](mailto:ecultural.bellasartes@ehu.eus)

Eskariak bidaltzeko epea oinarri hauek argitaratzen diren egunean hasi eta **2024ko maiatzaren 23an** amaituko da, egun hori barne, 23:59ak arte (penintsulako ordua).

## **PARTE HARTZAILEEN IRUDI ESKUBIDEAK**

Ikasleak adierazten du badakiela gerta litekeela bera agertzea Bilbao Arte Fundazioaren espazioetan informazio edo zabalkunde helburuetarako ateratako irudietan (argazkietan, bideoan...), eta, beraz, baimena ematen du bere irudia horretarako erabiltzeko, baina ez, logikoa denez, bere ohore eskubidea urra lezaketen erabilera edo aplikazioetarako, hori zehazten den bezala maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoan.

Azaldutakoaz bestelako erabilera guztiak baimen honetatik kanpo geratzen dira esplizituki.

## **DATUAK BABESTEIA**

Bekadunak baimena ematen du deialdi honetarako eman dituen datu pertsonalak Bilbao Arte Fundazioaren fitxategi batean sar daitezzen, deialdia kudeatzeari begira. Hau da fundazioaren helbidea helburu hauetarako: Urazurrutia 32, Bilbo.

Datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak baliatu nahi izanez gero, interesdunak mezu elektronikoko bat bidali beharko du [bilbaoarte@bilbao.eus](mailto:bilbaoarte@bilbao.eus) helbidera, gaiaren eremuan "datuak irispidean izateko eskubidea" jarrita. Mezuari erantsi beharko zaio datuen jabeak sinatutako gutun bat, jakinarazpenetarako helbide batekin, eta NANaren edo antzeko identifikazio dokumentu baten kopia.

## **ONARRIAK ONARTZEA**

Deialdi honetara aurkezte hutsak oinarri hauek onartzea dakar.